



ARGAZKIRIK ONENA AUKERATZEKO UNEA

Baditugu VII. Hitza Argazki Lehiaketako 8 finalistak; irakurleen bozkek erabakiko dute zein den irabazlea >4-5

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2008-04-13

VIURTEA 1.407.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Kick boxing lehiaren une bat, atzo, Olaederra kiroldegian. A. IMAZ

Izen aldaketarik ez onartzea eskatu du ezker abertzaleak

ZIZURKIL «Herriko biktimei iseka egitea» dela esan dute; bihar elkarretaratzera deitu dute

JENDE UGARI SELEKZIOEN ARTEKO KICK BOXING LEHIAN

VILLABONA ESAITek, Villabonako Udalak eta Bai Euskal Herriarik antolaturiko ekimenean kirola eta aldarrikapena uztartu zituzten 7



Pilotalekuaren kanpoaldean aritu ziren sukaldatzen. A. IMAZ

Eguzkia baliatuz pintxo bikainak Naturaldian,

Jexux Lacunza izan dute gogoan, Gipuzkoako Atletismo Txapelketan

TOLOSA Atzo arratsaldean izan zen txapelketa Berazubi estadioan 6

Bidaia Agentzia
bidaide sercom grupo



EGIN ORAIN UDARAKO ZURE ERRESERBA ETA GOZA EZAZU
%15 ERAINOKO DESKONTUAZ !!

Erniobeaa, 6 behea
VILLABONA
Tel.: 943 69 26 93

Txalaka DENDA BERRIA

PROMOZIO ARTIKULUAK

Zure enpresa promozionatzeko aukerarik onena, mota guztietako artikulua, guztiak pertsonalizatzen ditugu. Ezkontza artikuluen aukera zabala

Korreo kalea, 46 • 20400 TOLOSA • promotxalaka@euskalnet.net
Tel./Faxa: 943 11 71 63 • 605 725 517

Urtero lez, lurra ederminez



» Uzturretik

Patziku Perurena

Ametsa, poza, mina...
dena lurrez egina.

Izua, elurra, sua, loa...
denak dira lurrezkoak.
Urtea, argi, gaua, etzi...
Lurrak zer den badaki.
Lurrean noiznahi da beti.
Bat... Bete... Bete...
Eta guk deus ez jakinkil...

Eta gainera, bizitza,
heriotza, jainkoa, hitza...
denak lurrezkoak izaki.

Eta halare, barre egin zaio maiz

lur muttur bat maite duenari.
Baina, nora doake, gizajoa,
lur muttur baten minik gabe,
lurrez lur, lur osoa ukatuz
noraizean harro doana,
beste lur pittin bat izatera ez
bada?

Ez, lurra baizik ez gara.
Begira lurra, jiraka.
Zu eta ni bezala
bere buruaren bila...
Bere ezinen berri

bere buruari emateko
beste xederik gabe,
jira eta jiraka beti...

Bai, *umildadea* bera ere
lurreko *humus* etik datorkigu.
Horregatik *jende umila*,
lurra beste arimarik gabea.
Eta zenbat sentitu duen!...
lurrezko jende umilak
Eta zenbat ikasi, isilez isil!...
lurrezko liburu bakarretik...

Bai, emaile beti lurra,
eta hartzeko.
Eta lurra, ergelkeria
guzien atzeko.

Eta gizonak argirik ezin bildu,
lur pittin bat eskuan hartu
eta behin betikoz zentzatzeko.

Bai ona haizanela, lur maite!
Hemen! Orain! Erne!
beste maitalelorik gabe.
Eta ez aspertzen, halare!...
Oh lur! Lur hankapean zutitua...
Lur sakratu, lur puta santua...
Lur, biziaren ardatzean galdua.
Oh lur, ezin utzi eta
ezin hartua!
Lur, mirariz mirari ernaldua...
Lur isil, heure oinazetan ondua.
Oh lur, ederminez
betirako erotua!...

K Komikia

Gorka Salaberria



GIZA BALIABIDEETAKO TEKNIKARIA (ERREFERENTZIA: EE08-GBT)

Donostialdeko enpresa talde batek Giza Baliabideetako Teknikaria behar du. Giza Baliabideak sailean lan egingo du, eta taldeko langileen administrazioaz eta giza baliabideen kudeaketaz arduratuko da.


Eskatzen da:

- Unibertsitate mailako prestakuntza izatea.
- EGA edo balioidea izatea.
- Giza Baliabideetako gaietan esperientzia izatea (nominak, kontratuak, aukeraketak, prestakuntza...).
- Ofimatika programak erabiltzen jakitea.
- Kontuan hartuko da giza baliabideak kudeatzeko programa informatikoak ezagutzea.

Eskaintzen da:

- Iraupen luze kontratua.
- Egun osoko lanaldia.
- Lanean berehala hastea.

Bidali Curriculum Vitae zehatza, apirilaren 22a baino lehen, gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora. Ez ahaztu erreferentzia zehatza.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

@ **Irudietan.** TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN web-gunean hainbat argazki daude ikusgai: Herrietakoak, jaietakoak, elurrak zuritatako paisaienak, Korrikarenak, eta baita Hitza Argazki Lehiaketarenak ere. Hain zuzen ere, bertan daude ikusgai VII. Hitza Argazki Lehiaketan parte hartu duten argazkiak. Orain bertan zortzi finalistak ikusteko aukera ere baduzu, eta ondoren, tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info edota 943 65 56 95 zenbakian eman ahalko duzu botoa:

www.tolosaldeko-hitza.info

B Blogteka info

Komikiak euskaraz

LHko lehen zikloko ikasleak Gal-tzaundik antolatutako Komiki Erakusketako 100 tirak ikustera joan ziren. Egilea, Joseba, beraien irakaslea izanik joateko irrikaz zeuden eta zenbait mezu ulergaitzak egiten bazitzaizkien ere marrazkiekin asko disfrutatu zuten.

Antolatzaileen asmoa Komikiak Tolosaldeko hainbat herri, eskola eta egitasmoetara zabaltzea denez gurean ikustea espero dugu; txandan jarri beharko gara!

Argazkiak Hirukideren (www.hirukide.org) web gunean.
Hirukide ikastetxearen bloga
<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/hirukide/>

Rock doinu ezagunak hilaren 19an

Hilaren 19an, larunbata, beste kontzertu bat eskainiko du Tolo-

sako Musika Bandak. Kasu honetan musika estilo desberdinak eskainiko ditu: rock, zarzuela, opera eta filme doinuak.

Bost rock doinu ezagun biltzen dituen *Best song ever* obra izango da behar bada erakargarriena: *Rock around the clock*, Michael Jacksonen *Ben*, Meat Loafen *Paradise by the dashboard light*, John Milesen *Music* eta Village People-ren *Ymca*.

Bestalde, Verdiren *Aida* operako martxa, Serranoren *La canción del olvido* zarzuela, Laseronsen *Ceremony* eta *Chicago* film musikaleko *And all that jazz* doinuak interpretatuko ditu baita ere Musika bandak.

Kontzertua Zerkausan izango da 19:30ean. Ea oraingo honetan martxoko kontzertuko ez den gertatzen eta «jarri behar duenak» entzuleentzako aukiak, argia, kafeakzioa eta kristalera jartzen duen.

Baina dena ez da entsegua, lana eta kontzertua, atsedena eta jaiak ere behar da. Musika Banda bira ari da prestatzen hilaren 26rako, Getarira. Ondo pasa musikoak!

www.tolosamusikabanda.com

Tolosako Musika Banda

<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/banda/>

Gipuzkoako txapelaren bila

Iragan asteburuan, Gipuzkoako Txapelketaren Atletismo Froga Konbinatuak izan ziren Lasarte-Orian. Aipagarria izan zen Ainhoa Ruedak lortutako 3. postua; gainera, Idoia Alonso, Miren Berasategi, Amaia Elizegi eta Jon Ander Aurkia ere oso ondo saikatu ziren. Argazkiak Hirukideren web gunean daude ikusgai.

Hirukide ikastetxearen bloga

<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/hirukide/>



Hiru orduz pedalei eragiten

IBARRA • Aste Misiolariaren baitan, II. Ziklo Indoor Maratoia izan zen atzo Ibarako Belabieta kiroldegian. 80 lagun aritu ziren 3 orduz pedalei eragiten. Antolatzaileen esanetan, «joan den urtean baina jende gehiagok hartu nahi izan du parte, eta batzuk itxaron zerrendan geratu dira; aipatzekoa da, Oriotik 30 lagun etorri direla parte hartzera». ESTI ZEIZA



Gure Agenda 21eko ordezkariak Villabonako udaletxean

Joan den apirilaren 2an Fleming eskolako agenda 21eko ordezkariak, Jesusen Bihotza Ikastolakoekin eta Familien ordezkari batzuekin batera Villabonako udaletxean elkartu ginen. Aurretik aztertutako zaborren inguruko ondorioak atera, proposamen batzuk azaldu eta, azkenik, udaletxearekin konpromisu batzuk adostea izan ziren asteazken goiz horretako helburuak. Behin material hau jaso ondoren, Villabonako alkateari luzatuko zaio guztia.

Doctor Fleming ikastetxearen bloga: <http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/fleming/>



Plaza Zaharra luxuzko aparkaleku

TOLOSA • Plaza Zaharra ohiko ez den moduan Porsche autoez bete zen atzo. Izan ere, Porsche Gipuzkoaren hirugarren kontzentrazioaren amaierarako Tolosa aukeratu zuten luxuzko auto honen lagunek. Gidariak Robertu Ruizek prestatutako babarrunak jaten zituzten bitartean ikusgai egon ziren autoak jendearen gozamerako. I.T.

Tosalaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala · Tolosa (Bellatokia)

Harpidedunen esku dago orain zortzi finalisten artean irabazlea aukeratzea

VII. Hitza Argazki Lehiaketa » Epaimahaik hautatu ditu zortzi argazki finalistak; datorren igandearen argitaratuko da irabazlearen argazkia.

EBERAKIZIOA

Harpidedunen esku geratzen da orain guztia. Hitzaren Argazki Lehiaketaren zazpigarren edizioa heldu diren argazki guztien artean, bi orrialde hauetan argitaratzen diren zortzi argazki haiek aukeratu ditu epaimahaik finaleraino irazteko. Harpidedunek bozka emateko aukera dute eta horrek irabazlearen bakiko dute. Aste osoa dago bozka emateko eta hilaren 20an, igandean, argitaratuko da irabazlea. Aste Santu honetan jende asko etxean geratu omen da, eguraldi txarra zela eta. Hala ere, beste behin ere lehiaketaren paraisa altxatu izan da, guztira 42 argazki jaso ditugu bi aste hauetan, ederrak zein bikinak. Epaimahaik azaldu denez, «aukeratzea ez da erraza izan», izan ere, «argazki asko kalitate handikoak dira, beste askok oso bereziak, erabakia nahiko zaila izan da eta argazki asko gutxiatik geratu dira zortzi finalistentzera irazteko kanpo, lehia estua izan da».

Sari ezin hobekak lehiaketako irabazleentzat
Argazki Lehiaketan lehen postua eskuratzarekin batera sari interesgarria izango da irabazlearentzat. Hain zuzen ere, Villabonako Bidaide bidaiari agentziaren eskutik, zazpigarren edizio honetako irabazleak bi lagunentzako Orluako (Biskai) Aduana balnearioan asteburua igarotzeko aukera izango du, mantenu erdian. Honekin batera, bertan tratamenduak jasoko ditu irabazleak. Pizsina terminal zirkuitoa, aroma dutxa bat, kromoterapia sauna bat, lodo em-bolura bat eta yogur kremaz masaiak bat.
Bigarren sailkatuak ere merezi ditu sariak gure lehiaketan. Hain zuzen ere, Berrubiko Iriarte jatxe ezagunean bi lagunentzako

SARIAK

» **Lehenengo sailkatuarentzat**, Villabonako Bidaide bidaiari agentziaren eskutik, bi lagunentzako asteburu bat izango da Orluako (Biskai) Aduana balnearioan, mantenu erdian eta tratamenduak barne (Pizsina terminal zirkuitoa, aroma dutxa, kromoterapia, lodo emboluak eta yogur kremaz masaiak).
» **Bigarren sailkatuarentzat**, Berrubiko Iriarte jatxean bi lagunentzako afaria.
» **Zozkak**, bi opari hauez gain, parte-hartzaileen eta bozka emileen artean zozketa bana egingo da eta Hitzaren materiala jasoko dute irabazleek (aterkiak, motxilak...).

afari gozosa irabaziko da bigarrenak. Gaitortzeko parte-hartzaileen artean Hitzaren materiala zozketatuko da, euren argazki zortzi finalisten artean ez badago ere.

Harpidedun bakoitzak bozka bakarra
Finalista erabakitzerako garaian, bakoitzak bozka ezarri ditu Argazki Lehiaketaren epaimahaik. Hala, bozka ematen dutenek Hitzaren harpidedun izan behar dute derrigorrez eta harpidedun bakoitzak bozka bakarra onartuko da. Bozka ematearekin batera, harpidedun kodea eman beharko du. Hiru bide daude bozka emateko: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info helbidean, telefonoz deituta (943 655095) edota egitarazian bertan (Arabako bidea, 3. behe).

Ohitura bilakatu da dagoneko opororik ezarekin batera Hitzaren argazki lehiaketa antolatzea. Urteaz urte parte-hartzaileak handituz joan dira eta sari ugari banatu ditu HITZak zazpi edizio hauetan zehar.



Ibon Azpilikueta (Alegia). «Erg Chebbi-ko dunetan aterako argazkia, Marokoa».



Alaitz Amondarain Larriaga (Tolosa). «Senegaleko Djembering herriko hondartzan aurkitutako hiru mutikoa».



Mila Begiristain. Ilunabarra Saharako kanpamentuetan

HARPIDEDUNAK SARITU NAHIAN

Bozka ematen duten harpidedunek ere jasoko dute sariak. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN materiala izango da, hain zuzen ere, aukerari. Hala, bozka emateko deitzen dutenen guztien artean zozketa egingo da. Aterki, motxila eta elastiko ederrak eramango ditu etxera, soilik bozka emateagatik.
Era honetara TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK harpidedunen fideltasuna saritu nahi du, bai argazkia bidali duzuenon artean, baita bozka eman duzuenon artean ere.
Zuen intzia emateko bideak errazak dira: emailaz egin dezakezue (tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info), telefonoz deituta edota egitarazian bertan hurbilduta. Aukeratzeko duzun bidea aukeratu eta, zuen ditutak eman beharko dituzue eta harpidedun kodea zehaztu beharko da.

4
Ane Balerdi. Saharako Dajla kanpamentuan ahuntzak mantendu ezkin.

7
Miryam Lopez Ansorena (Tolosa). Marokon Marrakech-en aterako argazkia da. Kolore biziak dira nagusi.

5
Iker Chimenno. Parisen Sena ibaian eguzkia eskutatzen Eiffel dorrea ilustren delarik.

8
Jose Luis Iraola (Amasa). Aste Santuan narrajak bilzen Amasan.

6
Gontzal (Villabona) Arabako Gujuli ur jausia zorengiak dira gure bazterrak.

hitza
elastiko berriak salgai
haur, gazte eta helduentzat
elastikoarekin
poltsa opari!
Tolosako HITZAREN bulegoan eskuragarri.



Zizurkilgo ezker abertzalea atzo Joxe Arregi plazan bildu zen izendapen aldaketak ez onartzeko eskatzera. E. EZEIZA

Izendapen aldaketarik ez onartzeko eskatu dio ezker abertzaleak Udalari

Zizurkil » «Herriko biktimei iseka egitea dela deritzote»; erabakiarekiko desadostasuna agertzeko deia luzatu diete herritarrei.

ESTI EZEIZA

Zizurkilgo zenbait oroitari eta plaza izenen aldaketa eskatu zuen duela egun batzuk Raul Vazquez PPko zinegotziak. Bere ustez, «Joxe Arregi eta Jose Luis Geresta etakideen omenez izendatuta dauden plaza hauekin, terroris-

moaren etengabeko goratarrea bultzatzen da». Eskaera hau biharko Udal plenoan eztabaidatuko dute.

Honen aurrean, Zizurkilgo ezker abertzaleak, Udalari eskatzen dio, «ez dezala onartu inongo izendapen aldaketarik, eta ez dezala biktimen oroitarrik kendu». Beraien esanetan, «Udalaren erabakiak garai bateko zauriak irekitzea besterik ez du ekarriko». Honen bestez, bihar 18:30ean Pedro Maria Otaño plazara joateko deia luzatu diete herritarrei, Udalbatzak egun horretan hartu asmo duen

«erabakiaren aurrean desadostasuna agertzeko».

Biktima kontzeptuaren erabilera

Ezker abertzalekoek argi utzi zuten atzo ko agerraldian, ez dutela biktima bat gehiago ere nahi, «biktima bakoitzak mina eragiten baitu, eta denek eragiten baitute sufimendua». Hala, adierazi zuten, beraien prest daudela, «biktima gehiago egon ez daitezela lan egiteko, eta herri honen gatazka behin-goz konponbidean jartzeko».

Atzoko agerraldian salatu zuten

ere, biktima kontzeptuaren erabilera «gaiztoa eta interesatua» egiten ari direla. Historiako gatazka guztietan, modu berean ez bada ere, beti izaten direla biktimak diote. Horregatik, argi dute, duela gutxi ETAk eraildako Isaias Karrasok biktima zela, «baina baita Joxe Arregi eta Jose Luis Geresta ere».

Ekitaldian nabarmendu nahi izan zuten ere, «herrian inongo babesik ez duten zenbaiten probokazio etengabea». Horren adibide jarri zuten, eta aldi berean, gogor gaitzetsi, «Udalbatzaren erabakiz, presoen euskal herritarzearen alde jarri zen zapia kendu eta irudiak Interneten jarri izana».

Plazen izenen eratorria

Joxe Arregi zizurkildarra 1981eko otsailaren 4ean atxilotu zuten Madril. 9 egun geroago hil zen. Ezker abertzalekoek azaldutakoaren arabera, «8 egunez torturatua izan zen, 73 polizia hartu zutelarik parte galdekettan». Egun, Arregi etakide izan zela baieztatzen duen epairik ez dago.

Jose Luis Geresta *Ttottonen* inguruan ere ez dago epairik. 1999an, su etena indarrean zenean hil zen. Ezker abertzalekoen esanetan, «gorpuak zituen ezaugarriak erreparatu, auzi medikuak argi azaldu zuten ez zegoela inongo aztarnarik bere buruaz beste egin zuela esateko. Hala, kasua artxibatu egin zuten». Beraien usteetan, «Espainiako estatuak egin zuena estaltzeko helburuarekin». Hori dela eta, «hauen omenezko plaza izenak eta oroitariak kentzea, herriko biktimei, euren familiei eta zizurkildar guztiei egindako iseka da».

Fruitu eta barazki eskaintza zabala aurkitu zitekeen atzo mahaietan

Azoka » Etxeko balkoiak lorez gainezka jartzeko garaia dela ere nabari zen Berdura Plazako postu koloretsetan.

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna lasaia suertatu zen lehenengo orduetan, eta pixkanaka, eguzkia berotzen hasten ari zela, giroa ere animatu egin zen.

Postuetan berrikuntzak izan ziren atzokoan. Babak eta ilarrak mahai askotan ikusi ahal izan genituen, gainera, prezioak behera egiten zutelarik. Baba 3eurotik 5era bitarteko prezioan saldu zen eta ilarra 12 eurotan saldu zuten mahai guztietan.

Perretxikoen zerrenda ere gorantz doa. Atzo, bertako zizak eta onddoak izan ziren mahaietan. Bertako ziza 60 eurotan, kanpokoak berriz 35etan, eta onddoa 30eurotan saldu zen.

Berdura plazan ere landare apaingarrien postuak puri-purian daude, urteko une oparoenean. Honenbestez, garaia da etxeko balkoiak gainezka jartzeko.

» ATZOKO AZOKA

	Merk.	Gares.
Berdura plaza Landareak		
Alegria	1,00	1,20
Geranioa	2,00	-
Erromeroa	4,00	6,00
Xarbota	4,00	6,00
Klabelina	2,80	4
Kalendula	2,50	-
Surfinia	2,40	-
Lobelina	4,50	-

Bertako produktuak Perretxikoak

Ziza	60	35
Onddoa	30	-
Fruta		
Matxakana	6,00	-
Urra	2,00	3,00
Intxaurra	2,50	4,00

Barazkiak

Babarrun zuria	8,00	10,00
Ilarra	12,00	-
Tomatea	2,00	4,00
Porruak	1,00	3,00
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Kalabaza	1,50	3,00
Zainzuria	16,00	-

Gaztak

Gazta berria	16,00	-
Behi gazta	7,00	7,50

Produktu ekologikoak

Intxaurra	4,00	6,00
Azenarioa	2,00	2,50
Baratxuria	1,60	6,00
Tipula	1,75	2,00
Aza	2,50	3,00
Ahuntz gazta	3,00	-
Mermelada	3,00	3,60



Lacuzaren alargunari opariak ematen atzo Berazubini. E. EZEIZA

Jexux Lakunza izan dute gogoan

E. EZEIZA

Gipuzkoako Atletismo Txapelketa jokatu zuten atzo arratsaldean Berazubiko estadioan. Bertan, maila ezberdinetako neska-mutulek hartu zuten parte: junior jubeni, kadete eta beterranoen kategorian. Hala ere, ekitaldi bereziena, Jexux Lakunzaren omenezkoa izan zen. Txapelketaren baitan, Tolosa CFko kirolari handia izan

zuten gogoan. Lakunza joan den martxoan hil zen, 78 urte zituela.

Bere lagunen esanetan, Tolosako kolore urdina alde guztietan defendatu zuen. 20 urteko ibilbide luzea eta oparoa egin zuen atletismoan. Azken lasterketa 42 urte zituela korritu zuen. Baina nabarmenentzako dena da, bere garai-penak ia ustekabean etorri zirela, berezko dohainei esker.



Izeta II.a eta Irigoien, atzo Kantabrikean. E. EZEIZA

Irailean Izeta II. a eta Irigoien aurrez aurre

E. EZEIZA

Izeta II.ak Aimar Irigoienek botatako desafioa onartu du. Baina hori bai, baldintzak aldatuta. Atzo bildu ziren Kantabrikeko tabernan bi harri-jasotzaileak eta beraien taldekoak apustuaz eztabaidatzeko.

Azkenean akordio batera iritsi ziren, eta bi proposamen arteko erdibidea izango litzatekeena onartu zuten. Alde batetik, 137,5 ki-

loko kubikoarekin, 10 minutuko hiru altxaldi egin beharko dituzte. Aurkari bakoitzak 20.000 euro jokatuko ditu, eta sarrerekin irabazitako dirua bien artean banatuko dute. Azkenik, apustua egiteko aukeratu duten eguna irailaren 28a izango da. Honela igande eguerdi horretan aurrez aurre izango dira 22 urteko eta 41eko harri jasotzaileak.



Eguzkiaren indarra baliatuz

TOLOSA • Atzo ekin zieten Naturaldia jardunaldiak, *Energia, eta ekin!* lelopean. Aurtengoak energia berriztagarriak izango ditu ardatz. Hala, atzo bi ekitaldi izan ziren ekimen honen baitan. Goizean, Samariengo eco-eskola bisitatu zuten, eta ondoren, Eguzkiaren sukal-

dea, eguzkiaren indarra baliatzen duena, ezagutzeko aukera izan zen Roberto Ruizen eskutik. Gaur, *Artiko erregeak* (17:00etan) eta *Paisaia eraldatuak* (20:00etan eta 22:00etan) filmak eta Miren Gonzalezen erakusketa (18:30ean) izango dira Leidorren. A.I.



AHTren aurkako bizikleta martxa

TOLOSALDEAN • Tolosaldeko Gaztetxe eta Gazte Asanbladetakok kideek antolatutako bizikleta martxa, AHTren aurkako, atzo egin zen eguraldia lagun. Villabonatik 60 bat lagun irten ziren, Anoeta, Tolosa, Alegia eta Tolosan amaitzeko ibilbidea. Bidean *Ama lurra defenda dezagun!* eta *AHTrik ez!* oihuak entzun ziren. A.SIER IMAZ



Ukabilak eta oinak ederki astindu zituzten borrokalariak atzo Villabonako Olaederra kiroldegian. A.SIER IMAZ

Euskal Herria eta Katalunia nor baino nor Kick boxing lehia ikusgarrian

Villabona » Arratsaldean 'Nazio bat selekzio bat' lelopean kalejira egin zuten herriko kaleetan zehar.

ASIER IMAZ

Euskal Herriko eta Kataluniako selekzioaren arteko kick boxing lehia jokatu zuten atzo Villabonako Olaederran. 300 lagun inguru bildu ziren kiroldegian norgehiagoketak ikusteko asmoz.

Erakustaldia Euskal Herriko Kickboxing taldeak, ESAITek, Villabonako Udalak eta Bai Euskal

Herriarrik antolatu zuten. Baina ez zen eguneko ospakizun bakarra izan Katalunia eta Euskal Herriko borrokalari lehia. 16:30ean kalejira egin zuten herriko plazatik irtena, *nazio bat selekzio bat* lelopean. Antolatzaileen esanetan, «selekzio bat Euskal Herria nazio izaki, euskal herritarrok gure bu-

rua euskal herritar gisa munduaren aurrean agertzeko eskubidea dugulako, eta ez dugulako besteren beharrik nor garen eta zer garen munduaren aurrean agertzeko».

Kick boxing-eko emaitzei dagokienez, erredakzioa ixterako amaitu gabe zegoen oraindik.



Bigarren eskuko azokak erantzun ona

TOLOSA • Bigarren eskuko azoka antolatu zuten Kilometroak 08ko garbiketa eta ingurugiro batzordekoek atzo Triangulo plazan. Ikastola ezberdinetan bildutako materiala jarri zuten mahaietan salgai. Jende ugari gerturatu zen bertara, bai ikustera, bai eta erostera ere. Eta bide batez, noski, ekimen honekin bat egitera. A.IMAZ

BERRIAk kazetari bat behar du Andoaingo egoitzarako (erref. 08403)

Eskaintzen da:

- Urtebeteko kontratua (luzu daiteke)
- Etorbizuneko proiektu batean parte hartzeko aukera

Eskatzen da:

- Kazetaritza ikasketak izatea

Kontuan hartuko da:

- Kazetaritza lanetan esperientzia izatea
- Quark X Press programa erabiltzen jakitea
- Autoa izatea
- Hizkuntzak jakitea

Bidali zure curriculumak gb@berria.info helbide elektronikora, erreferentzia zehaztuz.





Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta/Leitza: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra/Leitza: 687 410 032. ibaraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza/Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitza/Leitza beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Amezketeta.** I. Nañañari Rallysprintaren inguruko bilera, plazan, bihar, 20:00etan.
- **Tolosa.** Apirilera zine bonuak salgai Leidorreko leihatilan.
- **Tolosa.** XIV Orduko Martxa maiatzaren 18an izango da. Izen-ematea, Aralarko Adiskideen elkartearen bertan (Araba etorbidea, 5).
- **Tolosa.** Tolosa Kup 08 txapelketan izena emateko aukera dago www.tolosakoudala.net-en edota Gazte Informazio Bulegoan. 75 euro ordaindu beharko dira.
- **Villabona.** Udaleko Euskara Zerbitzuak Amodiozko Gutunen Lehiaketa martxan jarri du. Lanak udaletxean entregatu behar dira.

Zinema

- **Tolosa.** Gaur, Naturaldia jardundien baitan: 17:00etan, *Artikoko erregeak* (euskaraz); 20:00etan eta 22:00etan, *Paisajes transformados*. Bihar, ikuslearen eguna, Naturaldiaren baitan: 20:30ean, *Artikoko erregeak* (euskaraz).
- **Villabona.** Gaur: 17:00etan, *Horton*, eta *Pozos de ambicion* 19:30ean. Bihar, ikuslearen eguna: 21:30ean, *Pozos de ambicion*.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- Gaur**
- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
 - **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
- Bihar**
- **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
 - **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
 - **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



Omenaldia iaz nabarmendu zirenei

IRURA Pasa den urtean nabarmendu ziren irurarre omenaldia egin amoz, Omenduz ekitaldia antolatu zuen atzo Udalak. Hain zuzen ere, Las-kibar eta Jauregi-Berri baserrietako ordezkariak (Tolosako lekale lehiaketako bigarren eta lehen saikatuak), Aitor Mendiluze (Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako irabazlea) eta Lore Amenabar (28. Gipuzkoako

Akordeoi Lehiaketan infantil mailako 2. saikatuak) omendu zituzten. Eguerdian harrera egin zieten udaletxearen kanpoaldean, eta ekitaldiaren ondoren bazkarian bildu ziren herritarrekin batera Jokin Sorozabal eta Unai Agirre bertsoetan aritu ziren, eta Unsain Anaiak, berriz, trikiti doi-nuak jarri zituzten. A. IMAZ

A Agurrak



Urte askoan!

Asier Pildain (Tolosa).

Gaur 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxe bulegoa

agurrak

txokoa **h**

zozketa
2 sarrera pare

Apirilak 14
astelehena o 16:30ean
Tolosako
Beotibar pilotalekuan



aspepelota.com

irabazleak:

- o Izaskun Goikoetxea (Alegia)
- o Ramoni Otamendi (Tolosa)

**Uriarte - Apeztegia
Cabrerizo - Galarza VI**

CAPELLAN - GOÑI III
GONZALEZ - NALDA III

Arizmendi Larralde
(2. Mailako Eskuz Banakako Txapelketa)